

# PROIEKTU PILOTUEN TRANSFERENTZIA-ELEMENTUAK

## LAN-ESPARRUA

I-Lab-en helburua partaidetzako berrikuntza babestea eta erraztea da, elkarri lotutako hiru esparrutatik: prospekzioa, esperimentazioa eta ezagutzaren eta esperientzien transferentzia.<sup>1</sup> **Hirugarren esparrua da, transferentziarena, orain dagokiguna.** [Kontzeptualizazioan](#), jakintza-transmisio hori bi norabideko modu batean gauzatzea proposatzen da:

- Alde batetik, proiektuei lagunduz, partaidetzako berrikuntza-prozesuak garatzeko baldintzak errazte aldera, entzuteko, aholkatzeko eta errazteko logika batetik.
- Bestetik, prozesuak eta emaitzak ebaluatu eta sistematizatuz, eskalatzea edo beste testuinguru batzuetan erreplikatzeko aukera bilatuz.

Beraz, gure lana da proiektuei laguntzea berrikuntza sustatzeko eta erreplikagarritasuna errazteko.

## HELBURUAK

Zeregin horri ekiteko, aurrez aurreko bilera bat aurreikusi genuen martxoaren 24rako, pilotuen transferentzia-produktuei buruz hausnartzeko. Bilera hori egitea ezinezkoa denez, dokumentu partekatu hau sortu dugu, zeinak helburutzat baitu **I-lab-eko 4 pilotuen transferentzia-produktuei buruzko ekarpenak biltzea**. Asmoa da zuen iritziak jasotzea eta zuen ikuspegi aditua eman ahal izatea. **Kontua ez da baloratzea pilotuak eurak** eta egiten ari diren prozesuak (hori otsaileko saioan egin genuelako), baizik eta **ateratako ikaskuntzak partekatzeko moduan zentratzea** eta esku artean dituzten ideiak aberastea.

---

<sup>1</sup>Kontzeptualizazio-dokumentuan jasotako definizioa, 3. konpromiso-taldeak egina eta adostua. Kontsultatu [hemen](#).

## INFORMAZIOAREN EGITURA

Dokumentuan pilotu bakoitzaren egoerari buruzko informazioa aurkituko duzue, honela antolatuta:

1. **Pilotuaren egungo egoerari buruz:** azalpen laburra, garapen-mailari eta egungo egoerari buruzkoa.
2. **Transferentzia-produktuei buruz:** ateratako ikaskuntzak partekatzeko aurreikusitako tresnei eta moduei buruzko informazioa.
3. **3KTaren ekarpenak:** gure ekarpenak idatziko ditugun atala. Arrosaz nabarmenduta dago, eta iruzkinak egiteko taula batera garamatzan esteka bat du. Dokumentuan, hura betetzeko jarraibideak ere azaltzen dira.

## AURKIBIDEA

MIGRATZAILEEN PARTE-HARTZEA AZTERTZEA ERREKALDEN

PILOTUAREN EGUNGO EGOERARI BURUZ

TRANSFERENTZIA-PRODUKTUEI BURUZ

3KTaren ekarpenak

THINKING FADURA

PILOTUAREN EGUNGO EGOERARI BURUZ

TRANSFERENTZIA-PRODUKTUEI BURUZ

3KTaren ekarpenak

PARTAIDETZA-PROZESUEN AHALMEN SALUTOGENIKOA

PILOTUAREN EGUNGO EGOERARI BURUZ

TRANSFERENTZIA-PRODUKTUEI BURUZ

3KTaren ekarpenak

PARTE-HARTZEZKO AURREKONTUAK

PILOTUAREN EGUNGO EGOERARI BURUZ

TRANSFERENTZIA-PRODUKTUEI BURUZ

3KTaren ekarpenak

# MIGRATZAILEEN PARTE-HARTZEA AZTERTZEA ERREKALDEN

## PILOTUAREN EGUNGO EGOERARI BURUZ

Proiektu honen helburu nagusia da irtenbide berritzaileak bilatzea, Bilboko barrutietan etorkinen parte-hartzea areagotzen laguntzeko.

Proiektuak bi fase ditu eta horietako bat amaituta dago.

1. Fasea, AMAITUTA. **Maximoak definitzeko dokumentu** bat egitea, oro har, eta bereziki, Errekalden, migratzaileen parte-hartzea aztertzeko pilotatze-prozesu bat definitzeko. Dokumentu hori 2019ko urritik abendura bitartean egin zen.
2. Fasea, PROZESUAN. **Aurreko dokumentua testatzeko partaidetza-prozesua**. Fase horrek hiru fase ditu:
  - a. **Prestaketa**-fasea (proiektua bertan dago): prozesuaren oinarriak ezartzeko dokumentu bat egitea. Bertan, beharrezko dokumentazio tekniko guztia bildu eta aztertzen da, hau da, prozesua osatzen duten mekanismo, tresna, mugarri, dokumentu, inkesta, testu eta abar guztiak. Proiektua dokumentazio guztia ixteko fasean dago. Datak zehaztea falta da eta zenbait agertoki edo jokaleku aztertzen ari dira, baina egungo egoera ikusita, zaila dirudi "kalera irtetea" edo taldekako saioak edo aurkezpenak egitea.
  - b. **Esperimentazio**-fasea: prozesurako aurreikusitako kanalak, tresnak eta parte hartzeko ekintzak abian jartzea eta garatzea. Datak zehazteke daude oraindik.
  - c. **Ebaluazio- eta transferentzia**-fasea: prozesuaren emaitzen azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa, adierazleetan eta jasotako ekarpenetan eta haien adostasun-mailan oinarrituta.

Hasiera batean, proiektua Barrutiko Kontseiluan aurkeztea aurreikusita zegoen, eta apirilaren 5ean egitekoak ziren hauteskundeengatik atzeratu behar izan zen. Orain, berriz, *sine die* atzeratu da, agian ez baita beste bilerarik izango kontseiluetan irailera arte.

Egoera horren aurrean, bi agertoki edo jokaleku aztertzen ari dira:

1. Prozesua online egitea eta elkarrizketa pertsonalagoak egitea (taldekoak eta aurrez aurrekoak ia ezinezkoak izango baitira) eta uztailean txostenen batekin iristen saiatzea. Zaila da hori, argi baitago migratzaileek gutxi erabiltzen dituztela tresna digitalak. Prozesua, hein handi batean, aurrez aurreko elkarrizketetan eta saioetan oinarritzen da.
2. Prozesua atzeratzea eta irailean egitea; beraz, azken transferentziaren bigarren dokumentua ez litzateke izango, baina bai teoria.

Maiatzera arte itxaron beharko da bi agertoki edo jokalekuak baloratzeko. Orain ezinezkoa da, dena zalantzan baitago.

## TRANSFERENTZIA-PRODUKTUEI BURUZ

### 1/ DEFINITUTAKO PRODUKTUAK

Orain arte, transferitzeko bi dokumentu zehaztu dira:

- **Maximoak zehazteko dokumentua, migratzaileen parte-hartzea aztertzeke pilotatze-prozesua definitzeko**

Dokumentu hori 1. fasean egin zen, eta, beraz, itxita dago. Helburu nagusia prozesuan erabilitako metodologia transferitzea da.

- **Partaidetza-prozesuaren ezarpenetik sortzen den ebaluazio- eta transferentzia-dokumentua.**

Egiteke dago. Helburu nagusia prozesuaren praktika transferitzea da.

### 2/ PUBLIKOA

Aipatutako transferentzia-produktuen publiko potentzialak honako hauek izango lirateke:

- Edozein udalerrri, hiri, eskualde, zona, auzo... baldin eta biztanleria migratzailearen parte-hartzea aztertzeke interesa badu, partaidetza areagotze aldera.

### 3/ FORMATUAK ETA BITARTEKOAK

Orain arte, goian aipatutako 2 dokumentuak egitea aurreikusi da, kontuan hartuta, bigarren dokumentuaren edukia zehazteko, esperimentazio-fasea nola eta noraino ezartzen den ikusi beharko dela.

## 3KTaren ekarpenak

[Klik egin esteka honetan](#) zure ekarpenak egiteko

[Aurkibidera itzuli](#)

# THINKING FADURA

## PILOTUAREN EGUNGO EGOERARI BURUZ

Proiektu honen helburu nagusia da ebaluatzea herritarrek parte hartzeko prozesuek zer eragin izan lezaketen toki-administrazioaren egiteko moduetan, hau da, jakitea herritarren parte-hartzeak zenbateraino eragiten duen politika publikoen diseinuan eta gauzatzean, eta zenbateraino eragiten duen alderdi zehatzetan, hala nola kontratazioan, hirigintzan, herritarren arretan, instalazioen mantentze-lanetan eta abarretan.

Orain arte, ebaluazio-arlo hauek identifikatu dira:

- Erakundearen barne-egituraren inplikazioa herritarren parte-hartzearekin lotutako prozesuetan.
- Herritarren parte-hartzearen emaitzarekiko lotura-maila, besteak beste, kontratazioari dagokionez.

Orain, Adimen aholkularitza-enpresaren laguntzarekin, lan bat egingo da Getxo Kirolak-eko barne-taldearekin (zinegotzitza, gerentzia, kirol-teknikariak, mantentze-lanak, kontratazioa, komunikazioa eta herritarren parte-hartzea), ebaluazio-sistemaren diseinuan inplikatzeko, eta parte-hartzea Getxo Kirolak-en barne-egiturara gehiago hurbildu dezaketen alderdiak ezagutzeko.

Gainera, adierazle espezifikoko batzuk garatu dira (erakunde barrukoa, herritarra eta lankidetzakoa), inpaktu horiek neurtzen eta ebaluatzen lagunduko digutenak. Herritarrekin parte hartzeko guneetan ere hasi da datu-bilketa, baina COVID19aren krisia dela eta, saio telematikoko pare bat baino ezin izan ditugu egin.

## TRANSFERENTZIA-PRODUKTUEI BURUZ

## 1/ DEFINITUTAKO PRODUKTUAK

Parte-hartzeak Getxo Kirolak-en barne-egituran duen eragina ebaluatzeko kit bat garatzea aurreikusi da. Honako elementu hauek izango ditu:

- Ebaluazio-arloak definitzea.
- Ebaluazio-mugarriak (saio partaidetuak, barne-bilerak, etab.).
- Adierazle-multzoa.
- Ebaluaziorako formulario-ereduak.
- Hona hemen zenbait gako:
  - Barne-egituraren inplikazioa lortzea.
  - Herritarrek itxaropenak edo igurikopenak kudeatzea.

Kit horren helburua ebaluazio-baliabide batzuk sortzea da, herritarren parte-hartzeak eragin handiagoa izan dezan politika publikoen diseinuan eta garapenean. Herritarren eta administrazio publikoaren arteko lankidetzak monitorizatu nahi da, prozesuak eurak eta berorien emaitzak hobetuko dituzten ikaskuntzak lortzeko.

## 2/ PUBLIKOA

Ebaluazio-kitaren publiko nagusia honako hau izango da:

- Administrazio publikoaren barruko zatia, politikoa zein teknikoa, zeinak, partaidetza-espazioak garatzen diren bitartean, birdiseinatu beharreko zerbitzu eta instalazioen hartzaila diren herritarrekin elkarreraginean baitihardu.

## 3/ FORMATUAK ETA BITARTEKOAK

Proposatutako ebaluazio-kitaren atal zehatzak jasoko dituen dokumentu bat egitea aurreikusten da.

*Thinking Fadurako* webgunean ere artikulua bat argitaratuko da eta prentsa-ohar bat bidaliko zaie hainbat komunikabideri.

## 3KTaren ekarpenak

[Klik egin esteka honetan](#) zure ekarpenak egiteko

[Aurkibidera itzuli](#)

# PARTAIDETZA-PROZESUEN AHALMEN SALUTOGENIKOA

## PILOTUAREN EGUNGO EGOERARI BURUZ

Proiektu honen helburu nagusia da adierazle-sistema bat ezartzea eta testatzea, partaidetza-prozesuek osasunean duten inpaktu-maila ebaluatzeko.

Hernaniko Tokiko Talde Sustatzailea (aurrerantzean, TTS) eratu eta prestakuntza-fasea amaitu ondoren (hizkera komuna sortzea eta osasuneko aktiboen mapaketa egitea), joan den otsailean hasi ziren prozesu kolektiboko ibilbide-orri bat lantzen. Une honetan, eta bi jardunalditan TTSrekin landu ondoren Hernanin parte-hartzea sustatzeko estrategiak, herritarren deialdi baterako edukiak garatzen ari dira, eta zenbait testu idazten ari dira partaidetza-prozesua zabaldu ahal izateko, dena prest utzita, aurreikusitako saioak herritarrekin hasteko, ahal denean.

Aldi berean, talde eragilean orientazio-gida bat izan daitekeenaren edukiak lantzen ari dira, parte-hartze komunitarioko prozesuetan osasunaren ikuspegia txertatzeko. Gida hori izango da proiektuaren transferentzia-elementu nagusia.

## TRANSFERENTZIA-PRODUKTUEI BURUZ

### 1/ DEFINITUTAKO PRODUKTUAK

Orain arte zehaztu diren transferentzia-produktuak honako hauek dira:

- **Orientazioa gida bat, osasunaren ikuspegia sartzeko partaidetza-prozesuetan (transferentzia nagusia)**

Komunitatearen partaidetza-prozesuak sustatzen dituzten eragileentzako zenbait jarraibide biltzeko gida egin nahi da, eredu orientagarri, malgu eta irekia, prozesuak garatzean ekarpen, iradokizun edo gomendio berririk sortuz gero, haiek hartzeko modukoa, edozein dela ere izaera eta jardun-eremua.

- **Osasun arloko aktiboen mapaketa**

Osasun arloko aktiboen mapaketa estrategia bat da, komunitate bateko pertsona guztiak proiektu jakin baten osasun arloko aktiboak identifikatzen inplikatzeko balio duena, hau da, pertsonen behar eta nahiei erantzun diezaieketen aktiboak identifikatu, baliarazi eta ikusarazteko estrategia.



- [Mentimeter](#) aplikazioa

Prozesu osoan zehar erabiltzen den tresna bat da, hizkera komuna ezartzeko osasunari, ongizateari, osasuneko ekitateari, osasuneko aktiboari eta parte-hartze komunitarioari buruz.

## 2/ GARATUTAKO EDUKIAK

Partaidetza-prozesuetan osasunaren ikuspegia txertatzeko gida orientagarrian lantzen eta definitzen ari diren edukiak honako hauek dira, besteak beste: komunitatearen parte-hartzea, osasuneko ekitatea, osasunaren gizarte-baldintzatzaileak, osasunaren gizarte-desberdintasunak eta osasuneko aktiboen mapaketa.

## 3/ PUBLIKOA

Aipatutako transferentzia-produktuen publiko potentzialak honako hauek izango lirateke:

- Partaidetza-prozesuak sustatzen dituzten eragileak, komunitate batetik, erkidegoko erakundeetatik eta komunitateko gizarte-saretik sortuak, besteak beste.
- Herritarrak.

## 4/ FORMATUAK ETA BITARTEKOAK

Ateratako ikaskuntzak bi modutara transferitzea aurreikusten da:

1. **Ezarrirako printzipio bakoitzerako jarraibideekin**, hau da, aniztasuna bermatzeko, autonomia eta autokudeaketa-gaitasuna bultzatzeko eta harremanen kalitatea ziurtatzeko jarraibideekin.
2. **Aipatutako printzipioak garatzeko faseetan**, hau da, ezarrirako hiru printzipiook diseinuaren, inplementazioaren, ebaluazioaren eta kontu-ematearen faseetan garatuko lirateke.

## 3KTaren ekarpenak

[Klik egin esteka honetan](#) zure ekarpenak egiteko

# PARTE-HARTZEZKO AURREKONTUAK

## PILOTUAREN EGUNGO EGOERARI BURUZ

Proiektu honen helburu nagusia da parte-hartzezko-aurrekontuak gauzatzeko moduak ebaluatzea, parte-hartzezko-aurrekontuak egiteko moduak ezaugarritu, alderdi edo ekimen positiboak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatu, ikaskuntzak bateratu eta erronka berriak identifikatzeko.

Gaur egun, amaituta daude proiektuan planteatutako 2 faseak, helburutzat baitzuten tokiko zenbait esperientziatik ikastea eta partaidetza-aurrekontuen prozesuak eratzeko gakoak identifikatzea. Egindako bi faseak honako hauek dira:

1. Tokiko esperientziak aztertzea eta gako nagusiak identifikatzea, esperientzian oinarrituta.
2. Hautemandako gakoak eta beste alderdi batzuk aztertzea parte-hartzezko aurrekontuen prozesuetako bi publiko objektiboak ordezkatzeko eragileekin: auzo-eragileak eta gizarte-eragileak, eta banakako herritarrak.

## TRANSFERENTZIA-PRODUKTUEI BURUZ

### 1/ DEFINITUTAKO PRODUKTUAK

Gaur egun badago dokumentu bat, transferitu beharreko eduki hauek biltzen dituena:

- Tresna honetan ibilbide nahikoa izan duten **tokiko parte-hartzezko aurrekontuen 5 esperientziaren deskribapena** (neurri eta errealitate desberdinetakoak, eta 3 lurralde historikoetakoak).
- **Zenbait gako**, udal batek kontuan hartu beharko lituzkeenak parte-hartzezko aurrekontuen prozesua eratzeko, bai eta lehendik dauden prozesuak ebaluatzeko eta birmoldatzeko ere.

Helburua da dokumentu bat sortzea, ahalik eta toki-erakunde gehienetara iritsi ahal izateko, eta, horrela, identifikatutako gakoak emateko. Hori guztia, parte-hartzea sustatze aldera, herritarrek udal-aurrekontua tresna estrategikoa den aldetik ezagutzea errazteko, erantzunkidetasunaren

zeneztik (garai hauetan garrantzi berezia duena), eta horrelako prozesuetan erabiltzen diren giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen efizientziaren ikuspegitik.

## 2/ GARATUTAKO EDUKIAK

- 5 erakunderen esperientziak (nola gauzatzen duten deskribatzea eta prozesuei buruzko gakoak).
- Parte-hartezko aurrekontuen prozesuak diseinatu eta birmoldatzeko kontuan hartu beharreko gakoaren eskema.
- Aukera estrategikoen inplikazioei buruzko zertzeladak (onurak, balizko oztopoak, egiteko modu bakoitzak "zer ematen dizun eta zer kentzen dizun" , etab.).
- Identifikatu prozesuko zer alderdi operatibo eta gehigarri hartu behar den kontuan, bai eta garatu ere, ekimenaren arrakasta handiagoa bermatzeko (barne-denboren kudeaketa, sartu beharreko profilak, lan teknikoak, sistematizazioa, komunikazioa, marka, etab.).
- Parte-hartezko aurrekontuen prozesuei buruzko azken gogoeta, baita parte-hartzeari, oro har, eta etorkizuneko erronkei buruzkoa ere.

## 3/ PUBLIKOAK

Aipatutako transferentzia-produktuaren publiko nagusia honako hau izango litzateke:

- EAEko edozein toki-erakunde.

## 4/ FORMATUAK ETA BITARTEKOAK

Ateratako ikaskuntzak bi fasetan transferitzea aurreikusten da.

Lehenengo fasean:

1. **Gakoei buruzko egungo dokumentua toki-erakundeei zabaltzea**, idatzita baitago jada, klabe erraz eta "didaktikoan" (EUDELen moduko eragileen bidez zabal liteke, adibidez).
2. Horrez gain, desiragarria eta interesgarria litzateke **dokumentua aurkezteko jardunaldi bat** egitea identifikatutako gakoak ezagutarazteko, adituen eta esperientzien azterketan parte hartu duten toki-erakundearen eta arlo horretan esperientzia duten beste erakunde batzuen parte-hartzearekin.

Bigarren fasean, pilotu honen irismenetik kanpo, interesgarria izango litzateke egindako lana egokitzea eta eduki berriak sortzea, hala nola:

3. **Parte-hartezko aurrekontuen prozesuei buruzko gida praktikoa**, dagoen dokumentua oinarri hartuta, baina elementu praktikoak txertatuta, hala nola:

- a. **Erabaki-zuhaitz bat**, erakundeek faseei eta egiteko moduei buruz hausnar dezaten (zer duten beteta, zer behar duten prozesu horretatik, herritarrek zer espero/nahi dezaketen, egutegi bat nola eratu, eta abar).
  - b. **Laguntza-materialen ereduak**, udalerriek oinarri gisa erabil ditzaten.
  - c. **Esperientzien eta jardunbide egokien estekak**.
  - d. ...
4. **Egindako gidari buruzko azalpen-bideo labur bat zabaltzea**.

## 3KTaren ekarpenak

[Klik egin esteka honetan](#) zure ekarpenak egiteko

[Aurkibidera itzuli](#)

